

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



ARXIU NACIONAL DE CATALUNYA

BIZKAIKO FRONTEKO MEZA, ERREPORTAJE BATERAKO GAI

David Seymour *Chim* argazkilariak "La messe de Campagne sur le Front Basque" izenburuko argazki-erreportajea argitaratu zuen 1937ko martxoan "Regards" aldizkariaren 164. zenbakian. Erreportaje berbera argitaratuko zuen Eusko Gudarostearen "Gudari" aldizkariak bere 5. zenbakian urte bereko apirilaren 15ean. Irudian, Txori-Erri konpainiako kideak ageri dira, Julian Jaio aita pasiota-rak emandako mezan. Julian Jaio ezagunagoa zen *Karakate* ezizenez, bera jaio zen Bolibarko baserriaren izena baita. Mezaren iru-dia Berriatuko Alipasolo baserrian egina da. Egile ezezaguneko artikulua ilustratu zuen argazkia Kataluniako Nazio Artxibategikoa da, Kataluniako Generalitateko Propaganda Komisariotzak 36ko gerran prestatutako albumetakoa, hain zuzen. Bertan David Sey-mur ageri da, kamera eskuan, beste lagun batzuekin Bizkaiko fronteko mezaren gaineko erreportajea egiten diharduela.